

telebista ♦ irratia

Asier Aranguren: «erredakzioa 5.000 metrora jarri dugu»

Iñurrategi anaiekin batera joan da 'Gasherbrum-1'era berriemaile lanetara

Erredakzioa / Donostia

Asier Aranguren kazetaria, Alberto eta Felix Iñurrategi, eta Gotzon Arribas kameraria Pakistan go mendikatean daude. Bi anaiak Gasherbrum-1 eta Gasherbrum-2 igozteko asmoz joan ziren baina orain arte eguraldiak ez die batere lagundu.

PAKISTANGO, mendikatean jarraitzen dute Iñurrategi anaiek eta Asier Aranguren. Eguraldi txarra izan dute orain arte eta monzoiak ia agortu ditu beren ahaleginak. Orain, oinarriko kanpamenduan dago Iñurrategi & EITB 2000 lan taldea. Proiektu honetan berriemaile lanean dabil Asier Aranguren. Baina ez da gisa honetako lana egiten duen lehenengo aldia. Oraingoan, igoera gertutik jarraitu eta albiste gietan horren berri ematea da bere lana, baina etxeratzen direnean mendi tontorretan jasotako irudiekin programa bereziak egingo dituzte, eta ondoren dokumental saio bat prestatzeko asmoa dute. Behe kanpamenduan kanpindenda txikia bulego bihurtu dute, Aranguren azaldu bezala: «kamera, ordenagailua, telefonoa, e-maila, monitorea... erredakzioa 5.000 metrora edukitzea da». Asier Aranguren kirolzale amorratua da eta kazetari lanean futbolaz edo mendiaz aritzea «pribilegioa» da beretzat. Hala ere, altuerara egokitzeko kosta egin zaiola dio. Baina Iñurrategitarren



Iñurrategi & EITB 2000 proiektua lanean da Pakistango mendietan bertan jazotakoaren berri emateko.

lana are gogorragoa dela aitortu du: «primeran prestatuta egotea ezezik, eguraldia ere alde behar dute». Honetxek egin die kale oraingoan, baina kazetariak dienez, eguraldi ona ezezik «suerte apur bat» ere behar da tontorrera iristeko. «Fisikoki egurtuta amaitzen dute, baina psikologikoki ere den-dena eskatzen du, tenplea eta

burugogorra izatea». Alberto eta Felix bezala, Asier Aranguren ere Aretxabale-takoa da eta ongi ezagutzen ditu bi anaiak, «biak desberdinak izan arren osagarriak dira eta oso ondo ezagutzen dute elkar». Hori da, neurri batean, beren arrakastaren sekretua; laster ETB-1ean, iruditan ikusi ahal izango duguna, gainera.

burugogorra izatea». Alberto eta Felix bezala, Asier Aranguren ere Aretxabale-takoa da eta ongi ezagutzen ditu bi anaiak, «biak desberdinak izan arren osagarriak dira eta oso ondo ezagutzen dute elkar». Hori da, neurri batean, beren arrakastaren sekretua; laster ETB-1ean, iruditan ikusi ahal izango duguna, gainera.

laburrean

'El escarabajo verde' ekologiari buruzko saioa Galizia eta Portugalgo mugan izan da

Natura eta ekologiari buruzko saio honetako lan taldea Ourenseko Loureses herrian eta Portugalgo Tourem-en izan da. Bi herri on artean hogei kilometro baino ez daudenez, ingurune natural berean daude eta bizimodua ere antzekoa dute. Beraz, Galizia eta Portugalen arteko muga fiktizioa da eremu hauetan. Hala ere, Loureses herria zahartu egin da. Tourem, aldiz, bizi-bizirik dago. Honen zergatia azalduko du *El escarabajo verde* saioak, gaur 17:00etan.

Victoria Abril gonbidatuko du La2-eko 'Vertigo' saioak

Miriam Diaz Arocak aurkeztutako saioan izango da Victoria Abril aktorea. Zineari buruz duen ikuspegia azalduko du eta bere ibilbideaz ere ariko dira. Victoria Abril hamalau urterekin igo zen lehenbizikoz taula gainera, gero *Un dos tres* saioan aritu zen, baina ordurako hainbat filmetan hartu zuen parte. Hortik hasi eta laurogeita hamargarren hamarkadara arte egin duen ibilbidea izango dute hizpide *Vertigo* saioan, 22:30ean.

Iñaki Beraetxek eta Anabel Arraizak aurkeztuta 'Festaburu' saioa hasiko da ETB-1 katean

Lesakatik abiatuko da saioa eta Euskal Herriko hainbat lekutan izango dira uda honetan, herri bakoitzeko ohitura, historia eta bitxikerien berri ematen. Gaurko saiora, Manuel Arozena bertsolaria, Itziar Alduntzin kazetaria, Irene Etxeberria aktorea eta Xabier Euskitze gonbidatuko dituzte. Umoreak ere bere tarteak izango du, baita antzerkiak, musikak eta dantzak ere. Hala, Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna, Wazenen musika, eta Aukera dantza taldea izango dira Lesakan. *Festaburu* saioa 22:40an hasiko da ETB-1 katean.

'Goenkale'ren azken atalean ezusteko ugari

■ Ane eta Gaizkaren semea desagertuko da eta Imanolen semea itzuliko da Estatu Batuetatik

Erredakzioa / Donostia

SEIGARREN denboraldia amaitu aurretik hamaika ezusteko emango digute arraldetarrek. Maria Luisaren biloba Mattin, desagertu egingo da. Ertzaintzaren komisarian Nekane agur esango die lagunei, eta Andonik bere sentimenduak adieraziko ditu lankideen aurrean. Bestalde, Txapas

kezkaturik dabil burusoila delako eta ligatzen ez duelako. Beatriz eta Mikelen arteko harremanaz ere ohartuko da. Imanolen etxean, berriz, poza izango da nagusi, bere semea Estatu Batuetatik helduko baita. Eta Elenek Arralden jarraitzea erabakiko du. Amaitzeko, datozen hiru egunetan seigarren denboraldiko unerik onenak eskainiko dituzte.



Lasatarrek ezusteko bat izango dute Goenkaleren denboraldi honetako azken atalean. Irudian familiako kide batzuk Boga-boga tabernan.